

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Generoa eta sexualitatea haur hezkuntzan. Irakaslegaien formakuntzaren diagnostika.

Egilea

Garazi Eskitxabel Diaz

Gradua

Haur Hezkuntza

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

- 4. Kalitatezko hezkuntza,
- 5. Genero berdintasuna,
- 10. Desberdintasunak murriztea

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honek egun pil-pilean dauden genero eta sexualitate gaiak jorratzen ditu Haur Hezkuntzako etapan ematen den lanketa ardatz harturik. 0-6 urte bitarteko haurren genero eta sexualitate hezkuntzaren garrantzia azpimarratu nahi da, eta horren ondorioz, baita Haur Hezkuntzako irakaslegaien formakuntzaren garrantzia ere. Lan honen helburu nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako irakaslegaiarentzako genero eta sexualitateari buruz eskaintzen diren formakuntza aukerak aztertzea da, gaur egungo unibertsitateak gai hauei buruz eskaintzen duen hasierako prestakuntza nolakoa den ezagutu eta hobekuntza aukerak proposatzeko. Horretarako, lehenik eta behin, terminologia sakonki aztertu da, hitz-gakoei buruzko informazioa bilduz eta zenbait kontzeptu definituz. Jarraian, Haur Hezkuntzan genero- eta sexualitate-heziketaren egoeraren diagnostika egin da, duen garrantzia azpimarratuz. Ondoren, heziketa hori bermatzeko, Haur Hezkuntzako irakaslegaiak jaso behar luketen formakuntza zein izango litzatekeen aztertu da. Azkenik, ikerketa kualitatibo bat burutu da, zeinean gaur egun EAEn Haur Hezkuntzako Gradua eskaintzen duten bi unibertsitateetako (Euskal Herriko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) kide ezberdinek parte-hartu duten, eta egungo formakuntza eskaintzaren berri eman duten.

Gradu Amaierako Lan honek egun pil-pilean dauden genero eta sexualitate gaiak jorratzen ditu Haur Hezkuntzako etapan ematen den lanketa ardatz harturik. 0-6 urte bitarteko haurren genero eta sexualitate hezkuntzaren garrantzia azpimarratu nahi da, eta horren ondorioz, baita Haur Hezkuntzako irakaslegaien formakuntzaren garrantzia ere. Lan honen helburu nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako irakaslegaiantzako genero eta sexualitateari buruz eskaintzen diren formakuntza aukerak aztertzea da, gaur egungo unibertsitateak gai hauei buruz eskaintzen duen hasierako prestakuntza nolakoa den ezagutu eta hobekuntza aukerak proposatzeko. Horretarako, lehenik eta behin, terminologia sakonki aztertu da, hitz-gakoei buruzko informazioa bilduz eta zenbait kontzeptu definituz. Jarraian, Haur Hezkuntzan genero- eta sexualitate-heziketaren egoeraren diagnosia egin da, duen garrantzia azpimarratuz. Ondoren, heziketa hori bermatzeko, Haur Hezkuntzako irakaslegaiak jaso beharko luketen formakuntza zein izango litzatekeen aztertu da. Azkenik, ikerketa kualitatibo bat burutu da, zeinean gaur egun EAEn Haur Hezkuntzako Gradua eskaintzen duten bi unibertsitatetako (Euskal Herriko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) kide ezberdinek parte-hartu duten, eta egungo formakuntza eskaintzaren berri eman duten.